

Etorkinek eta haien seme-alabek euskara ikas dezaten saiatzen da euskalgintzaren mundua, baina prozesuak zailtasun ugari ditu, bai agerian, bai ezkutuan. Horiei buruz mintzatu da Amelia Barquin.

# Etorkin euskaldunak, sinpatiatik abiatuta

Maite Asensio Mungia

**E**torkinak euskarara erakartzeko beharrea bat datoz euskaltzaleak, baina nola egin daiteke hori? Etorkinak euskarara hurbiltzeko modu zabalduenetakoa da haien seme-alabek eskolaren bidez euskalduntzea, eta hala, gurasoengan hizkuntzarekiko motibazioa piztea. Baina prozesu hori konplexua da, Mondragon Unibertsitateko (Gipuzkoa) Giza Zientzien Fakultateko irakasle Amelia Barquinek atzo azaldu zuenez. Mungian (Bizkaia) izan zen, EHUK antolatutako arte eta kultura topaketetan, bertako eta etorkinen hizkuntzak eskolan txertatzeak dakartzen erronkei buruzko hitzaldia ematen.

Migrazio proiektua abiatu eta gurera heltzen direnean, euskara ez dago etorkinen lehenetsunaren artean. «Gaztelania edo frantsesa ez den beste hizkuntza bat dagoenik ere ez dakite batzuek», dio Barquinek. Horrek euskaltzaleen artean kezka eragin arren, abisua eman du Barquinek: «Euskarra galduko bada, ez da etorkinen erruz izango». Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako biztanleen %6,1 baino ez dira etorkinak, eta haren usetez, portzentaje hori ez da «erabakigarria»; «Etorkinei euskararekiko atxikimendu eskasa egotez diegu, hemengo elebkarrei baino gehiago eskatzen diegu».

Izan ere, hemengoek zergatik ikasten dute euskara? Komunikazio, lan eta ideologia arrazoiak

aipatu ditu Barquinek: «Baina etorkinek hizkuntza esposizio mugatua dute: lan zaratsua edo bakartia badute, komunikazio elkartruke gutxi daukate. Lagun euskaldunik ez badute, eta supermerkatuan erdaraz molda badaitzeteke, ez dute euskara behar».

Halaber, arrazoi ideologikoak aztertzean, *haiek-gu* dikotomia ikusten du Barquinek bertako diskurtsoan: «Ez ditugu gutar-



Etorkinak gutartzen ez ditugun bitartean, ez dute euskara guk bezala ikusiko, altxor gisara»

«B eta D ereduak eskolek 'nahi' al dituzte ume etorkinak? Ikasle zailtzat hartzen dituzte?»

AMELIA BARQUIN  
Mondragon Unibertsitateko irakaslea

tzat hartzen. Arraro jantzen, jaten eta hitz egiten duten horiek dira... Gutartzen ez ditugun bitartean, ez dute euskara guk bezala ikusiko, altxor gisara». Hori dela eta, euskararekiko eta euskal kulturarekiko sinpatia lortu beharra nabarmendu du, «ikasiko ez badute ere, jarrera positiboa izan dezaten, adibidez, seme-alabak euskaldun ditzaten». Sinpatia hori lortzeko, bada, ezinbestekoa da haien hizkuntza eta kulturekiko elkartzasuna agertzea. «Batzuetan haien ama hizkuntza ere gu-

txitua izan daiteke, eta horri estimua adierazi behar zaio. Gutxieneko keinu batzuk dira, haien izek ondo ahoskatzea, esaterako».

## Zergatik A eredura?

2007-2008 ikasturtean, etorkinen seme-alaben %45,4 A ereduan matrikulatu ziren, hau da, euskara irakasgai soiltzat duen eredu. Amelia Barquinek uste du arrazoi asko dagoela hautu horren atzean: jatorri bereko umeak eskola jakin batean egotea, egoera soziolinguistikoaren berri ez izatea... «Baina batzuetan, eskola batzordeek A eredura bideratzen dituzte, edo gurasoei ez zaie ondo azaltzen zertan datzan hemengo eskola sistema, eta zein aukera duten». Ikasle etorkinei A ereduaren harrera ona egiten zaiela gaineratu du: «B eta D ereduak eskolek 'nahi' al dituzte ume horiek? Esfortzurik egiten al dute? Ikasle zailtzat hartzen dituzte?».

Euskara ez ikasteak ondorio txarrak izan ditzake etorkinengan, baina Barquinek iritziz, prozesu konplexua dela onartu behar da. Batez ere 10 urtetik gorako haurrek: «Testuak ondo kudeatzeko gaitasuna bereganatzeko bost eta zazpi urte bitarteko trebakuntza behar da. Batzuek ez dute astirik». Ildo horretan, kasuak banan-banan aztertutako bera direla uste du: «Ez da erraza, baina kontuan izan behar da non bizi den, aurretik eskolatuta egon den, zein gaitasun dituen, zein motibazioa... Erabakia posible denaren izenean hartu behar da, ez



Amelia Barquin, atzo, Mungian. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

politikoki zuzena denaren izenean».

Gainera, euskara irakasterokan, irakasleek arazo berriekin egiten dute topo: «Ez dakite gaztelera eta frantsesa ez den beste hizkuntza bateko hiztunek zein zailtasun izango duten euskara ikastea, edo zer kostako zaien gehien. Askok falta zaigu ikasle immigranteen hizkuntzen oinarriko ezagueriaz jabetzeko, baina inportantea da jakitea haien hizkuntzan adituz kopulaturik dagoen alaez, edota zenbat bokal dauzkaten».

Bertako hizkuntzak ikasi ahal, ordea, etorkinen ama hizkuntzak galtzeko arriskua dagoela erantsi du Barquinek, batez ere, «eskolan bereak baino prestigio handiagoa duen hizkuntza ikas-

ten dutenean». Hori dela eta, ikasle etorkinen ama hizkuntzak eskolan sartzeko ekimen apur batzuk badaudela aipatu du, nahiz eta irakasleen artean zalantza batzuk agertu diren, arabiera klasi-koa irakasten delako eta ez egun-koa, edo berebarean antzeko hizkuntza gutxituak ikastea aukerarik ia ez dagoelako.

Edonola ere, gaiaren inguruko egia absoluturik ez dagoela dio Barquinek, baina argi du etorkinek euskararen etorkizunaren parte izan behar dutela: «Euskara galduko bada, ez da etorkinen erruz izango; baina euskarak iraungo badu, ez da soilik bertako hizkuntza izango, bertakoe-na eta kanpotik etorritakoe-na baizik».



## MALLABIKO UDALA

IRAGARKIA

- 1.- Erakunde Adjudikatzailea Mallabiko Udala
- 2.- Kontratuaren helburua:
  - a) Helburuaren deskribapena: Goitondo Behoko Lau Industrialdean dagoen Industri Pabiloia besterenketa
- 3.- Bideraketa, Prozedura, Adjudikazio era
  - a) Bideraketa: Armuta
  - b) Prozedura: Irekia
  - c) Era: Adjudikaziorako irizpide bakarra preziorik altuena izango da (enkatu publikoa)
- 4.- Litzitazioaren oinarri gutxienez
 

347.712,12 € (zergak kenduta)
- 5.- Bermeak:
  - a) Behin-behinekoa: litzitazioko prezioaren % 3a
  - b) Behin betikoa: adjudikaziorako prezioaren % 5a (zergak kenduta)
- 6.- Dokumentazioa eta informazioa eskuratzeko lekua:
  - a) Mallabiko Udaltzaren Arteiz Kalea 4z/bk, Tel 943-171461 eta Kontratatuzailearen profila: www.mallabia.org
  - b) Agiriak eta informazio eskuratzeko muga: Eskaintzak aurkezteko ezarri den egun bera.
- 7.- Eskaintzen aurkezpena
  - a) Aurkezteko epe-muga: HAMA BOST (15) egun balioduneko epean, BAOean iragarria argitaratu ondoren.
  - b) Epea larunbatean bukatuko balitz hurrengo lanegunera luzatuko da.
  - c) Aurkezteko beharrezko dokumentazioa: Administrazio Baldintzen Plegua eta agindu teknikoaren plegua ikusi
  - d) Aurkezpenerako lekua: Mallabiko Bulego Orokoetan.
- 8.- Eskaintzen Irekia (B gutun-azala)
  - a) Erakunde: Mallabiko Udala
  - b) Helbidea: Arteiz kalea 4z/bk.
  - c) Irudia: Mallabia
  - d) Data eta ordua: Litzitazioleiei deitu egingo zaie, eta Kontratatuzailearen Profila argitaratu da: www.mallabia.org
- 9.- Beste informazio batzuk
 

Administrazio Baldintzen plegua ikusi

Mallabian 2009ko ekainaren 25ean.- Alkate ordekoa

## IRUNVI

NIK, JUAN JOSÉ JAUNARENA NUÑEZ JAUNAK, IRUNGO ETXEBIZITZARAKO ELKARTE PUBLIKOA/SOCIEDAD PÚBLICA DE VIVIENDA DE IRUN SAUko Administrazio Batzordeko Idazkaria naizen aldetik, elkartearen irungoa baita, San Juan Harria zk. g., eta Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan izen-eman: Izen-ematean 1.902 Liburukiko 99 folioa, SS 19.288 zenbakiko Orria, I. izen-ematea, IFK: A-20736773.

ZIURTATZEN DUT honako hau ondorioztatzen dela Sozietateko Akta-liburutik:

2009ko martxoaren 25ean, eta SOCIEDAD PÚBLICA DE VIVIENDA DE IRUN, IRUNGO ETXEBIZITZARAKO ELKARTE PUBLIKOA S.A.U.ren helbide sozialean, Elkartearen Batzorde Nagusi Unibertsala egin zen, eta han, honako erabaki hau hartu zen aho batez:

1. Onestea Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publiko/Sociedad Pública de Vivienda de Irun, S.A.U.ren Estatutuak 2. artikuluan aldatzea, Elkartearen Xedari buruzkoa, i) atal berri bat sartuz, honela idatzia gera dadin: "2.1) artikulua.- IRUNGO ETXEBIZITZARAKO ELKARTE PUBLIKOA /SOCIEDAD PÚBLICA DE LA VIVIENDA DE IRUN SAUK, Sektore Publikoetako Kontratuaren urriaren 30eko 30/2007 Legeko 24.6 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, berezko bitarteko tresnaren eta Irungo Udalaren Zerbitzu Teknikoaren izaera dauka.

Berezko bitarteko tresnaren eta zerbitzu teknikoaren izaera duen aldetik elkarteari enkargatzen zaizkion nahitaezko jarduketak, kasuak izan diren, proiektuetan, memorietan edo beste dokumentu tekniko batzuetan definituta egongo dira, eta dagokien aurrekontuan baloratuta, ezarritako tarifaren arabera.

Berezko bitarteko tresnaren eta zerbitzu teknikoaren izaera izatearen ondorioz, IRUNGO ETXEBIZITZARAKO ELKARTE PUBLIKOA / SOCIEDAD PÚBLICA DE LA VIVIENDA DE IRUN SAUK ezin izango du parte hartu Irungo Udalak deitutako litzitazio publikoetan, haien xedeko prestazioak gauzatzeko enkargatzearen kalterik gabe, litzitazioleiei aurkezte ez denean.

2. Administrazio-kontseiluko presidenteari ahalmena ematea behar diren dokumentuak sina ditzan, erabaki hau jenduraren agertzeko eta gero Merkataritza Erregistroan izena emateko.

Eta hala jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin dut, Irunen, 2009ko maiatzaren 12an.

PRESIDENTEA, Jose Antonio Santano Clavero  
IDAZKARIA, Juan José Jaunarena Nuñez